

**LANBIDE
HEZIKETA**

**BIDEOAK
IKASGELAN
LANTZEKO FITXA**

**#aitzindariakLH
#pionerasFP**

www.hetel.eus

HETEL 

Babesle nagusia:



Babeslea:





ESKULIBURUA

1 NON ERABILI?

DBHko eta Batxilergoko ikasgeletan.
Oso feminizatuta dauden heziketa-zikloetan ere bai

2. IKASGELAN LANTZEKO GIDOIA

- Lanpostua hautatzea

BIDEOA IKUSI AURRETIK.

- Bideoa ikusi aurretik, ikasleak, lanpostuaren izena jakinik, lanbidearen deskribapen bat aurkitzen saiatuko dira interneten: lanpostu hori lortzeko beharrezkoa den prestakuntza, lanpostuaren funtzio nagusiak eta kokatuta dagoen industria sektorea. Guzti honen bidez, estereotipoak apurtu nahi dira.

BIDEOA IKUSI

BIDEOA IKUSI ONDOREN.

- Bilatu honako hauei buruzko informazioa:

- o Lanpostu horren inguruko lan-eskaintzak
- o Laneratzeko ematen dituen aukerak.
- o Lanpostu horiek dituzten enpresen kokapena (enpresen mapa bat egitea)

- Ezagutzen al duzu lanpostu horren ingurunean lan egiten duen pertsona hurbilik (senideak, lagunak eta abar)? Ikertu zuen ingurunean ikusi ditugunen antzeko lanak egiten dituen emakumerik badagoen, eta diseinatu emakume horiekin egiteko elkarrizketa bat. [IRADOKIZUNA. Zer ikasi zuen? Nolakoak izan ziren haren praktikak eta lehen zereginak? Nola egin du aurrera lanbidean?...](#)

- Ondoren, grabatu pertsona horrekin egindako elkarrizketa, eta prestatu bideo bat eta aurkezpen bat, ikasgelan aurkezteko.

- Bisitatu enpresaren bat, lanpostu hori bertan ikusteko

- Orain arte bildutako informazio guztiarekin, aztertu zuen ustez pertsona horiek beren eguneroko lana egiteko bete behar dituzten baldintzak. Horretarako, beharrezkoak diren ezaugarrien zerrenda bat egin, eta txertatu ondorengo taulan. Ondoren, adierazi ezaugarri bakoitza gizonak egiteko, emakumeek egiteko edo batzuek zein besteek egiteko egokiagoa den, eta justifikatu aukeraketa. [IRADOKIZUNA. Ikasgelan eztabaida bat egitea.](#)

EZAUGARRIAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	BATZUK ZEIN BESTEAK	JUSTIFIKAZIOA: ZERGATIK?



ESKULIBURUA

3. LAN EGITEKO EGOKIAK DIREN BESTE INGURUNE BATZUK

Ikasgelan lantzeko

- Irakasgai batzuetan (Teknologia, Ekonomia eta abar) lanbideen gaia lantzea. Bakoitzaren ingurunean, industriako Lanbide Heziketa egin duten emakumeak identifikatzea.
- Tutoretzan estereotipoen gaia lantzea
- Emakumeak eta industria arloko lanbide mundua lantzeko erronka bat diseinatzea (eta bideoak material gisa txertatzea).

IRADOKIZUNA. Industria arloko erdi mailako eta goi mailako ikasleak (emakumeak ahal bada) dinamika horiek lantzeko garaian Batxilergoko edo DBHko ikasgelara joatea proposatzen da, bertan parte hartu eta beren ikuspuntua proposa dezaten.

Irakasleen klaustroan lantzeko

- Bideoren bat ikustea eta ikasleekin eta familiekin lantzeko ideiak ateratzea. Aldi berean, lagungarria izango da klaustroa bera emakumeek industrian duten egoeraren inguruan informatu eta sentsibilizatzeko.

Familiekin lantzeko

- DBHko eta Batxilergoko familiekin egindako topaketa batean, industria lanbideei eta emakumei buruzko mahai-inguru bat antolatzea, eta bideoak erreferentziatzeko material gisa erabiltzea.

Material guztia eskuragarri: <http://www.hetel.eus/index.php/eu/aitzindariakFP>
Lanbide-arloei buruzko informazio gehiago: <https://ivac-eei.eus/es/>